



barren

helduen hezka



Bidean da Korrika

Alfonso Eugi, AEK euskaltegiko irakaslea



Haritz Txurruka Ugarteburu

2024ko martxoaren 7an hil zen.

Beti izango zaitugu gogoan.

Mendaroko zure lagunak



Marina Amor Garcia Garcia

2024ko martxoaren 10ean hil zen, 69 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Imanol Konde Isasi-Isasmendi

2024ko martxoaren 13an hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Isabel Elorza Ansola

2023ko martxoaren 16an hil zen, 88 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
martxoaren 17an, 12:30ean, Mendaroko Garagartza elizan.
Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.



Petra Arana Bastida

2024ko martxoaren 7an hil zen, 100 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.
Mila esker, baita ere, San Lazaro egoitzako
eta eguneko zentroko langileei.

***Ama, amama,
zure irribarrea gurekin betirako.***

Etxekoak



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Maialen Sanchez

Idazlea

Eskatu desira bat zerura begira



"Ez dugu teleskopiorik behar izarren edertasunaz gozatzeko. Nahikoa da lepoa zerura biratzea"

Noiztik ez diozu erreparatzen zeruari gau ilunetan? Izarrak argi puntu hutsak dira, baina haien laguntzaz fisikaren legeak sortzeaz gain, giza historiaren zati handi bat ere eratu dugu.

Baina zer dira puntu dirdiratsu horiek? Badakigu gas arinez sortuak direla, batez ere hidrogenoz eta helioz. Argia zergatik ematen duten ere ulertu dugu: barruko tenperatura oso altua delako, azalera baino milioika gradu altuagoa. Jakin izan dugu ere euren argia guregana ailegatu daitekeela izarra hilda egon arren.

Antzinatek gizakiak jakinmina izan du astronomia arloan, eta izarrei esker, bidaien bide zuzenak jarraitu ditu. Nekazariek landatzeko momentu aproposena zein den jakin izan dute, beste hainbat gauzetaz aparte. Zerura begira eta izarrak aztertzen orduak eta orduak eman ditu gizakiak, gozatu du haien magia eta izarrek komunikazioetan aurrerapen handiak lortzen ere lagundu dute. Hala ere, gaur egungo munduan, liluratzen gaituen argi bakarra, tristeza izan arren, pantailen argia da.

Poesia hutsa dirudi, baina aspalditik sumatzen genuen zerbait da; izan ere, izarren materia berarekin osatuta gaude, eta ez dut nik esaten, zientziak dio.

Ikerketa askok baieztatzen dute karbonoa duen materia organiko guztia izarretan sortu zela; hau da, gure gorputzeko osagaien zati handi bat.

Ez dugu teleskopiorik behar haien edertasunaz gozatzeko, nahikoa da gau argi batean lepoa biratu eta zerura begira jartzea. Mugimendu txiki horrekin, munduko gerretatik, sare sozialetatik, argiaren fakturatik eta munduko zaratatik ihes egin dezakegu. Probatu, erraza da. Airea eta perspektiba pixka bat hartzeko aukera ematen digu, zerura begiratu eta gure materiari desio bat eskatu, izarren hautsa baikara.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantziokun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eman diezaiogun euskarari kalea!

Aurrekoan, lan egiten dudana institutuan ikasle batek bota zidan: "Hamar pertsona bagaude eta batek euskaraz ez badaki, errespetuzkoena da gaztelera hitz egitea". Esaldi horren eta bota duen pertsonaren atzean, hamaika bizipen daude, eta horietan barna nagusitu den logika bat antzeman daiteke, hau da, mundua gobernatzen dutenen logika indibidualista eta sasi-bakezalea.

Euskal Herrian (ere) agintzen duen logika horrek berak ezkututzen ditu pertsonen artean dauden botere-harremanak; klaseak, sexu-generoak, azal-koloreak, hizkuntzak... eragindakoak. Horrela, denok aske eta botere berdina bezala pentsatzera eraman gaituzte, gure bizipen eta ekintzen kausa zein ondorio sistemikoak ikusezin bihurtuz. *Nik euskaraz edo gaztelera egin, zer axola du? Aske naiz nahi dudana egiteko! Gainera, ez dadila inor gaizki sentitu, ez dezagun inor gaizki sentiarazi...* Pentsamolde honek, bistan da, itxurazko bakea ezartzen du, noski, zapaltzaileen mesedetan eta zapalduaren kaltetan.

Azken urtetan, ikasleek euskara eskolarekin eta arauarekin lotzen duten irudipena dut, eta erdara, kontrara, dibertsioarekin eta askatasunarekin. Urte luzetako borrokaren ondorioz euskara neurri (txiki) batean instituzionalizatzea lortu dugun bitartean, diglosia egoera bortitzean jarraitzen dugu, baina gutxi hitz egiten da horri buruz, eskoletan, etxeetan zein kalean. Errealitate gordin hori ezkutuan geratu da.

Horren aurrean, astindu berri bat behar du gure hizkuntzak eta komunitateak. Apirilaren 22tik 28ra izanen dugun Euskaldunon Harrotze Asteak horretarako aukera eskainiko digu, kaleak hartuz, elkarrekin ahalduzko eta bizi ditugun zapalkuntzen arduradunak seinatzeko. Korrika bezalaxe, kolektiboki harrotzeko ariketa izanen da, parte hartu nahi duten euskaltzale guztiei irekia.

Gure institutuko ikasleek, beste guztiok bezala, egoeraren kontziente izateko eta askatzailea den komunitate baten parte aktibo

izateko eskubidea dutelako. Eman diezaiogun euskarari kalea!

Sugoi Etxarri (Euskal Herrian Euskaraz)

XXIV. Pilota Eguna

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, martxoaren 9an, ospatutako XXIV. Pilota Eguna antolatzen lagundu duen Elgoibarko Lagunak Pilota eskolako arduraduneri, familiei, ikasleei eta hau aurrera ateratzen lagundu diguzuen guztiei.

Bestalde eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei. Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Pilota Eguneko Batzordea

Oharra

Aste Santua dela-eta, martxoaren 29an eta apirilaren 5ean ez dugu BARREN aldizkaririk kaleratuko. Beraz, data horietarako zerbait kaleratu nahi izanez gero, martxoaren 22ko zenbakian izan beharko du (azken eguna: martxoak 20). BARRENeko bulegoa apirilaren 8an zabalduko dugu.

BARREN



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



San Roke kalean baldosa batzuk solte daude:

"Kiroldegitik Basarterako bidean baldosa batzuk solte daude.

Azkenaldian euri asko egin du, eta behin baino gehiagotan busti izan naiz solte dauden baldosak zapalduta. Eskertuko nuke espaloia konpontzea. Eskerrik asko".



Txarriduna aurreko bidean ez dago autoarekin bazterrerara joateko aukerarik:

"Trafiko handiko gunea da Maalako ingurunea, eguneko ordu zehatz batzuetan bereziki. Anbulantziak ere, egoitza Basarten izanda, hortik irteten dira errepidera, eta pare bat aldiz gertatu zait anbulantzia etorri eta ezin baztertu izana, espaloian lorontzi handiak daudelako. Pentsatzen dut lorontzi horiek jarri zirela jendeak hor ez aparkatzeko, baina momentu batzuetan horra baztertzeko beharra eduki izan dut, eta ezinezkoa da. Zerbait pentsatu beharko litzateke egoera horiek saihesteko".



Zaborrak errekarara ez iristea laguntzen du sareak:

"Txalo bero bat eman nahi nioke Udalari edo dagokionari Mendaron errekarara ematen duen baranda zati honetan sarea jartzeagatik. Onena lurrera ezer ez botatzea litzateke, baina bitartean halakoak lagungarri dira, lurrera botatzen diren plastiko eta abarrek errekan ez bukatzeko".



Egun osoko egitaraua prestatu dute biharko, Karakate Eguna ospatzeko

Karakate Eguna antolatu du biharko Karakate Bizirik plataformak, herriko beste eragile batzuekin batera. Egun osoko egitaraua prestatu dute, Karakaten parke eolikoaren egiteko proiektua bertan behera laga dutela ospatzeko. Hasteko, 10:30etik aurrera, rokodromoan ibili, eskulanetan aritu edo hainbat jolas egiteko aukera izango da Kalegoen plazan. 12:30etik aurrera, trikitilariak eta dantzariak girotuko dute plaza, eta 13:30ean erraldoiek eta dultzaineroek hartuko diete lekukoa. Kalegoen plazatik irten eta kalejiran joango dira Maalako parkeraino. Han, performancea egingo dute Taupada Antzerki Taldekoek, 14:30ean, eta horren ostean, bertan bazkalduko dute. Bazkalostean musika izango da protagonista. Gabi eta Alfonso bikoak eta Kitziki taldeak kontzertu bana emango dute, 19:00etatik aurrera. Gauean, 22:30etik aurrera, hiru taldek emango dute zuzenekoak: Los Del Garaje, The Pladures, The Jacintones.



Karakateko zentral eolikoaren proiektua bertan behera geratu izana herri osoaren lorpena izan dela adierazi dute Karakate Bizirik plataformatik, eta hori herritarrekin ospatu nahi izan dute. Antolakuntzan laguntzaile izan dituzte: Taupada, Haritz EDT, Aizu! ostalarien elkarteak, Elgoibarko dultzaineroak eta trikitilariak, Morkaiko M.E., Erbuze konpartsa, CATT Morkaiko taldea edo Egur arte tailerra.

Pedro Mugurutzako eskola ez botatzeko elkarretaratzea egingo dute bihar

Elgoibarko Udalak Pedro Mugurutzako eskola zaharra eraisteko asmoari eutsi dio, eta horren

kontrako elkarretaratzera deitu dute biharko. 13:00etan bilduko dira, Kalebarren plazan.

Landa-bide publikoen ordenantza aldatu du Mendaroko Udalak

2020ko uztailaren 29an Mendaroko Udalak landa bide publikoen erabilera berezia arautzen duen udal ordenantza onartu zuen. Bertan, atoidun kamioiei galarazi egiten zitzaizkien landa publikoak erabiltzea. Urte hauetan hainbat eskaera egon dira

debeku hori kentzeko, eta gaia aztertu ondoren, otsailaren 27an Mendaroko Udaleko udalbatzak aho-batez onartu zuen debekua altxatzea. Apirilaren 23a arte egongo da jende aurrean, eta epe horretan alegazioak aurkezteko aukera izango da.

Herritarrei Gobernu Plana aurkezteko bilera antolatu du Mendaroko Udalak hilaren 20rako

Martxoaren 20an aurkeztuko du Mendaroko Udalak Gobernu Plana, udaletxean, 19:00etan. Bilera irekia izango da eta herritar guztiak gonbidatu ditu Enez Ezenarro alkateak. Plan horren bidez

mendaroarren bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoa hartu dutela zehaztu dute, eta horretarako 75 neurri "zehatz eta egingarri" landu dituztela. Proiektu horien zehaztasunak emango dituzte bileran.

King-Kong zubiko obraren bigarren fasea lizitatuko du Elgoibarko Udalak

King Kong zubiko lanen bigarren fasea lehiaketa publikora ateratu du Udalak. Esleipen-prozedurari buruzko informazio guztia, baita lizitazio-prozesuari buruzko xehetasun osagarriak, Elgoibarko Udaleko kontratatzailearen profilean kontsulta daitezke, eta proposamenak aurkezteko epea datorren martxoaren 27an amaituko da.

Bigarren fasean Deba ibaiaren gaineko egungo pasabidea berritu, eta Urazandi auzora sartzeko lehen igogailuraino iritsiko den konexio-pasabidea eraikiko dituzte. Horrez gain, N-634 errepidea zeharkatzen duen pasabide zaharra eta horri lotutako ibaiaren ezker aldean dagoen arripala eraitsiko dituzte.

Bigarren faseko lanek iraun bitartean kendu egingo dute Deba ibai gaineko pasabidea, berria jartzeko. Tarte horretan, beraz, bi aukera izango dituzte herritarrek, igogailura iristeko: merkatu plaza atzeko zubia erabiltzea edo Maalako zubitik hasita N-634 errepidearen paraleloan dagoen bidetik. Udaletik zehaztu dutenez, Merkatu Plaza atzetik abiatzen den bidean egokitzeko lanak egingo dituzte une hori iristen denerako.



Ingelanekek diseinatu eta idatzitako proiektuaren lehen fasea gauzatzen ari dira orain. 2023ko irailean hasi zituzten lanok eta ekainerako bukatzea aurreikusten dute, hamar hilabeteko epean. Lanen lehen zati honetan, N-634 errepidearen gainean pasabide bat eraikiko dute, igogailu batekin eta eskailerekin osatuta, autobus-geltokitik sarbidea errazteko.

Ondorengo etapetan, konexio-arrapala jarriko dute ezker aldean, eta igogailuaren goiko ontziratzea, bai eta Pilarreko ikastetxe zaharraren lurzaturara sartzeko pasabidea ere.

Merkatu Plazarako eredu berria proposatu du EH Bilduk, ostegun goizei bizia emateko

Merkatu Plaza dagoen eraikinean osasun zentro berria eraikitzeko proiektua iragarri du Osakidetzak, eta Elgoibarko EH Bilduk uste du merkatu plazari buruzko hausnarketa egiteko unea dela. Beraiek diotenez, ostegun goizak bereziak dira Elgoibarren, herritar askok eta baita inguruko herrietakoek ere ohitura dutelako egun horretan erosketak egiteko. Azken urteetan, baina, merkatu plaza gainbeheran dagoela diote, eta aukera bat zabaldu nahi diotela ostegun goizei eta lehen sektoreari: "Herrian baserriko lanetik bizi diren baserriar gutxi egon arren, inguruetatik etorri daitezke eta baita nekazari berriak erakarri ere; batak ekartzen du bestea, bi norantzatan", esan dute. Azpeitiko merkatu plazaren eredu aintzat hartu dute beraien proposamena lantzeko.



Asteartero 43 postu kokatzen dira, Azpeitiko, bailarako nahiz Gipuzkoako beste lekuetatik joandako baserriarrentzat eta itxarrote zerranda dago gainera. EH Bilduk dio Udalek nekazaritza gaietan eskumen gutxi dituztela, baina gertuko erakundeak izanda, uste dute tresna garrantzitsuak izan daitezkeela baserriar, herritar eta entitateen artean sinergiak bultzatzeko. Elgoibarko Udal gobernari proposamena "modu eraikitzailean" luzatu nahi dio EH Bilduk, gaia elkarrekin landu eta garatzeko.

Osasungintza publikoari buruzko mahai-ingurua egingo dute eguenean



Elgoibarko anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabaltzeko borrokan ari da 24/7 Plataforma, "herritarren kezka nagusienetako bat" delakoan. Horren harira, Osakidetzaren egungo egoeraren gainean hausnartzeko bi mahai-inguru antolatu ditu: lehenengoa sindikatuekin egingo dute datorren astean, hilaren 21ean, Herriko Antzokian, 18:30ean, eta hauek izango dira hizlariak: Jose Luis Paulin (SME), Esther Saavedra (ELA), Pilar Mendia (Satse), Jesus Oñate (LAB) eta Patxi Nikolau (ESK). Osakidetzaren egungo egoeraren diagnostia egin eta etorkizunerako konponbideak izango dituzte hizpide. Martxoaren 26rako, bestalde, alderdi politikoekin ari dira mahai-ingurua lotzen.

Hilekoaren zikloa ezagutzeko ikastaroa antolatu dute Mendaron

Hilekoa beldurrik gabe eta naturaltasunez bizitzen ikasteko ikastaroa antolatu du Mendaroko Udalak apirilera. Bi orduko bi saio izango dira, apirilaren 12an eta 26an, 18:00etatik 20:00etara, eta gehienez hamabost lagunentzako lekua egongo da. Martxoaren 20an zabalduko dute izena emateko epea: mendaro.eus/eu/ziklikoki-bizi-ikastaroa

Jaione Gisasola Askazi taldekoak emango du ikastaroa, Azpilgoetako Kultur Etxean. Gertutasuna eman eta konfiantza giroa sortzen saiatuko dela aipatu du gidariak, hilekoaren inguruan solasteko gune seguru bat sortzen alegia. Esperientziak trukatzeko dituzte, eta jolasak, praktikak eta esperimentazioa uztartuko dituzte.

Txitxirio pedrosillanoa batuko dute Elgoibarren, eta makarroiak Mendaron, Greziako errefuxiatuentzat



Zaporeak elkartearen bitartez, Greziako errefuxiatuentzako elikagaiak bilduko dituzte Debabarrenean, martxoaren 18tik 22ra. Txitxirio pedrosillanoa jasoko dute Elgoibarren eta makarroiak Mendaron. Elgoibarri dagokionez, asteleheneetik ostiralera jasoko dituzte garbantzuak Merkatu Plazan, 10:00etatik 13.00etara arte eta 17:00etatik 20:00etara arte (astearte eta ostegun arratsaldez itxita egongo da). Honi lotuta, tupper solidarioa ekimena egingo dute martxoaren 23an Eibarko Erreal plazan. eta ekarpen ekonomikoak egiteko kontua ere zabaldu dute: ES53 2100 2724 8101 0066 3988.

Stock azokako sariak banatu ditu Txankakuak



Martxoko Stock Kale Azoka egin zuten Txankakuako kideek joan zen astean, eta erosketaren bat egin zuten herritarren artean 400 euro zozkatu dituzte. Honako lau lagunek irabazi dute 100 euroko erosketa bono bana: Diana Rodriguez, Carla Medina, Arantxa Cebrian eta Zuzel Matos. Txankakua Merkatari Elkarteko 23 merkatari hartu zuten parte merkatariitza txikiari bultzada emateko asmoz antolatzen duten azokan, eta establezimenduetako atarietara atera zituzten euren produktuak hiru egunetan.

MARINA MARROQUI

Gizarte hezitzailea

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗣️ Asier Orbea

'Eso no es sexo. ¡Otra educación sexual es urgente!' liburua aurkeztu zuen joan zen astean Marina Marroqui (Elx, 1988) gizarte hezitzaileak Elgoibarren, baina aurkezpenaren aurretik, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin batu zen Herriko Antzokian, pornografiak gaur egungo gazteengan duen eraginaz ohartarazteko. Bakarrizketa formatuan aritu zen, umoretik eta gazteen hizkuntzan. Amaieran sexu onaren dekalogoia aurkeztu zien gazteei, eta sexu indarkeriari aurre egiteko hainbat aholku eman zituen.



Zerk bultzatu zaitu 'Eso no es sexo' liburua idaztera?


Eso no es amor liburua idatzita neukan eta haren segida moduko bat da hau. Bakarrizketak egiten nituen gazteekin, eta haiek kontatzen zizkidaten bizipenak biltzeko beharra sentitu nuen. Gazte horien bizitzan bi orduz baino gehiago egoteko beharra neukala konturatu nintzen, eta eman nahi nien beraiantzako baliagarri izango zen dokumentazio bat. Hasieran autoestimaren, jazarpenaren eta bestelako gaien inguruko kezkek azaleratzen zizkidaten gazteek, baina konturatu nintzen gaia aldatu egin zela eta gero eta gehiago irteten zirela sexu erasoen kontuak. Sexu erasoak bikotean, familian edo lagunartean. Mutil batzuek esaten zidaten iritsi zela puntu bat ez zekitela neska bat bortxatzen ari ziren edo ez... *Eso no es amor* bakarrizketak hamar urte egin ditu aurten. Liburu horretan berdintasunaren gaia jorratu nuen, baina konturatu nintzen azken hiru urteotan tendentzia aldaketa bat egon zela gazteen kezken artean eta sexuak behar zuela bere espazio propioa. Horregatik sortu nuen liburu hau, gazteentzako eta haien gurasoentzako lagungarri izango zelakoan. Liburu honetan, gazteek niri kontatzen didatenaren berri eman nahi diet gurasoei. Umorea eta gazteen hizkuntza erabiltzen ditut, eta horri esker lortzen dut haien konfiantza. Nerabeek orokorrean ez dituzte gauzak etxean kontatzen, eta pornografiaren ingurukoak are gutxiago. Gurasoek ez dakite gaur egungo gazteek zein motatako pornografia kontsumitzen duten, nondik iristen zaien, zein adinetan hasten

“Benetako sexu heziketa behar dugu; ez du balio platano bati kondoia jartzeak”

diren pornografia ikusten... Liburu honek argibide asko emango dizkie.

Kontuiezaguz, bada, nondik eta zer iristen zaien gazteei, pornografiari dagokionez.

Indarkeria askoko irudiak jasotzen dituzte gaur egun. Emakume bat hil, pusketatan zatitu, eta, nola bortxatzen duten agertzen duten irudiak jasotzen dituzte, edo ume jaioberrien bortxaketak, talde bortxaketak... Horri ezin zaio pornografia ere deitu. Gehienetan gazteak ez doaz eduki horren bila, baina iritsi egiten zaie telefonoko txat batera, deskargatzen dituzten aplikazioen bidez, Play Stationeko jokoan bidez... Hortik ihes egitea gaur egun ezinezkoa da, pornografiaren industriak hori duelako helburu, eta horri kontra egitea oso zaila da. Liburu hau ez dut esango helduentzako mendeku bat denik, baina bai da ohartarazpen



bat. Askotan egiak min egiten digu eta erosoagoa da pentsatzea gure seme-alabei ez zaiela hori gertatzen, baina helduok jakin behar dugu gure gazteak zer ari diren bizitzen; gure ardura da.

Zein adinetan hasten dira gazteak pornografia kontsumitzen?

8-9 urterekin hasten dira, eta argi eduki behar dugu adin horretakoak ez direla nerabeak, haurrak baizik. Pornografiak haurtzaroa deusezten du. Kanean jolasean egon behar duen ume bati pornografia erakustek sekulako kalteak eragiten dizkio eta hori penagarria da. Haurtzaroko oinarrizko eskubideak dira indarkeria eta egoera sexualizatuetatik libre bizitzea, eta pornografiak hori eragozten du. Baina adin horretan umeak ez doaz pornografia bila; alderantziz gertatzen da: pornografiak bilatzen ditu umeak. Eta galdera da: zergatik bere bizitzan ikusiko dituen pornografia irudirik sadikoenak 8tik 15 urte bitartera ikusiko ditu gizonezko batek? Zein helburu dauka pornografiak?. Azken finean, sexu indarkeriaren normalizazioa dakar horrek guztiak. Adin horretan eraikitzen da desioa, eta adin horretan desioarekin konektatzen zaituen horrek kitzikatuko zaitu gero bizitzan. Pornografia irudien %88k sexu indarkeri edukia dute, eta gazteek hori ikusten badute, gero hori nahiko dute. Mutil askok esaten didate beraien neskalaguna izugarri maite dutela, baina sexua praktikatzeko orduan ez badiote iletik tira egiten edo ez badute indarkeriaz tratatzen, ez dutela berdin gozatzen.

Zein pornografia mota kontsumitzen dute gazteek?

Lau taldetan sailkatzen da gazteen pornografia kontsumoa: intzestia, talde bortxaketak,

"Ume batek pornografia irudi bat jasotzen duenetik bera aktiboki bila hasten den arte lau-bost urte pasatzen dira; beraz, margena badago gaia lantzeko"

pederastia eta emakumeenganako indarkeria. Kontu honetan hain ezaguna egin zen *La Manada* kasuak ere ez du batere lagundu. Gaur egun gazteen artean pornografia bideorik ikusienak talde bortxaketak dira, bilioika ikustaldirekin. Pornografia da emakumeenganako erasoen eskola, eta arrikutsuena da irudi horiek iristen zaizkiela beraien garapen prozesuaren erdi-erdian. Adin horretan enpatia garatzen dute esaterako, eta irudi horiek tartekatzen badira une horretan, enpatia blokeatu egiten da. Hori demostratuta dago historikoki, eta horregatik zehazten zaizkie bideo-jokoei, filmei edo bestelako bideoei ere gutxieneko adina, gauza batzuk adin jakin batzuetan ikustek luzera kalte handia eragiten duelako. Argi esango dut, enpatia garatzen ez duen pertsona, psikopata da.

Gurasoek zer egin dezakete egoera honen aurrean?

Baloreetan oinarritutako heziketa sendoa eman behar diegu seme-alabei, eta pentsamendu kritikoa garatu behar dute. Maitasuna eta sexua toki guztietan dago, baita umeentzako filmeetan ere, eta ikusten duten hori zalantzan jartzen erakutsi behar zaie. Film bat edo iragarki bat elkarrekin ikusten dugunean seguru ditugula gaiak beraiekin lantzeko aukerak, ume-umetatik.

*"Ezin zaie mutikoei eskatu
ausartak eta indartsuak izatea,
eta, aldiz, neskei ederrak
eta gustagarriak"*

Une horiek aprobetxatu egin behar dira beraiekin naturaltasunez hitz egiteko. Guraso askok galdetzen didate ea umeekin sexuaz pornografia irudiak jasotzen hasi aurretik hitz egin behar den, eta galdera hori oso arriskutsua iruditzen zait, nolabait aditzera ematen duelako pornografia sexua dela, eta hori ez delako horrela. Batzuk hasi dira pornografia feministaz hitz egiten, baina pornografia estilo horri indarkeria esplizitua kendu diote soilik, inplizitua ez. Boterearen eta emakume zapalduaren ideiak hor jarraitzen du eta hori ikasten jarraituko dute. Lagunaren mina zer den erakutsi behar zaie umei. 8 urteko ume bati azaldu behar zaio posible dela ikustea eskolako patioan liderra izan nahi duen ume bat beste bati bideo desegokiak erakusten, eta litekeena dela umei edo emakumei min egiten dizkieten irudiak erakustea egun horretan patioko popularrena izateko, eta, jakina, hori ez dagoela ondo. Azaldu behar diogu norbaitek barre egiten badio, ez dela bere laguna, edo egunen baten bikotekideak min ematen badio, ez dela hori bikotekide ona. Argi azaldu behar dugu sexuan ere mugak daudela, eta ez badago plazerrik, errespeturik eta gozamenik, hori ez dela sexua. 8 urteko ume batek badaki zein egoeratan sentitzen den deseroso, eta eskatu behar diogu gustuko ez dituen irudiak jasotzen baldin baditu, gurasoei esateko.

Ume batek pornografia irudi bat jasotzen duenetik, bera aktiboki bila hasten den arte lau-bost urte pasatzen dira; beraz, margena badago gaia lantzeko. Baina gurasoek egin dezaketen garrantzitsuena umeak emakumeenganako errespetuan heztea da. Mutikoen erreferenteak maskulinoak dira guztiak; 8 urtetik aurrera ez dute emakumezkorik miresten. Beraz, printzesa ausartaren ipuina edota emakume zientzialari edo futbolarien gaiak umetatik landu behar dira mutikoei, emakumeak errespetatu ditzaten. Ezin zaie mutikoei eskatu ausartak eta indartsuak izatea, eta, aldiz, neskei ederrak eta gustagarriak.

Benetako sexu heziketaren beharra aldarrikatu duzu.

Bai, urgentziaz behar da gainera. Espainian bost neskatatik batek sexu-abusuak jasaten ditu eta hamabi mutikotik batek. Hiru nerabetatik batek genero indarkeria jasaten du, eta bitik batek sexu indarkeria. Benetako sexu heziketa behar dugu; ez du balio platano bati kondoi bat jartzeak. Pornografia alde batera lagatzeko ezinbestekoa da

ume eta nerabeei sexua zein dibertigarria den azaltzea. Nik beti esaten diet egungo gazteen belaunaldia izango dela pornografia gorrotatuko duen lehenengoa, benetako sexua deskubritzen dutenean konturatuko direlako pornografia baino mila aldiz hobea dela. Maite duten pertsona batekin sexuaz gozatzea zer den deskubritzen dutenean konturatuko dira pornografiak zein kalte egin dion beren sexualitateari. Gai hau umetatik landu behar da seme-alabekin, adin bakoitzean tokatzen den moduan. Nire alabak berak garbitzen du bere bagina urtebete zeukanetik, eta argi dauka bere gorputza ezin duela beste inork ukitu berak nahi ez badu, nahiz eta lehengusua, osaba edo laguna izan. Argi eduki behar dute gurasoek ezingo dutela ebitatu beraien seme-alabengana pornografia iristea, baina iristen zaien une horretan irudi horiek baztertzeko tresna egokiak ematea posible da. Lege aldetik ere gehiago egin beharko litzateke, eta badakit lanean ari direla, baina zaila da. Eta Hezkuntza Legean ere heziketa sexualari beste pisu bat eman behar zaio urgentziaz. Psikopedagogo batek ezin ditu mila ikasle hezi. Nerabeen motxilak pisu gehiegi dauka, eta helduok ezin dugu beste aldera begiratu.

Sexu onaren dekalogoia ere publikatu duzu liburuan.

Bai, eta horrez gain sakeleko telefonoaren erabilera egokiari buruzko argibideak ere jaso ditut, gurasoen eta seme-alaben artean kontratu moduko bat adosteko. Lantxo edo proba batzuk ere proposatzen ditut familiar egiteko, oso hezitzaileak direnak, eta azkenik sexu onaren dekalogoia bildu dut. Formula ere jarri diot: Plazera + dibertsioa + errespetua = benetako sexua. Azken finean zera esatera nator: egiteko zuri egitea gustatzen zaizuna. Esan nahi dudana da sexuari buruz pornografia ikusiz ikastea *Fast&Furius* filmarekin gidatzen ikastea bezalakoa dela. Ez da erreala, eta pornografia baztertzen ez duten bitartean, ezingo dute benetako sexuaz gozatu.

MARTXOAK 8, IRUDITAN

📷 Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia / Asier Orbea







BIDEAN DA 23. KORRIKA

✍ Ainara Argoitia

Atzo abiatu zen Irundik Korrika, euskararen aldeko ekimena, eta eguaztenean, martxoaren 20an, iritsiko da gurera. Saturio parean hartuko diete lekukoa elgoibartarrek soraluzearrei, 12:09ak aldera, eta herri osoa gurutzatuta, Mendaro aldera hartuko du gero. Duela bi urte ez bezala, aurten, Mendaron ere sartuko da (12:55ak aldera) eta herriko hiru auzoetan barrena ibiliko da.

Errepidean dabil Korrika. Atzo abiatu zen Irundik eta martxoaren 24an amaituko da Baionan, Euskal Herri osoan zehar 2.700 kilometro inguruko ibilbidea osatuta. Bidean, Elgoibartik eta Mendarotik ere igaroko da, martxoaren 20an (eguztana), eta Elgoibarko AEK euskaltegiekoek eta Mendaroko Korrikaren batzordekoek prest dute dena euskararen aldeko ekimenik handiena bihurtu dena hartzeko.

1980an sortu zuen Korrika AEK-k, euskararen aldeko kontzientzia suspertzeko eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzeko, eta egun, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta parte-hartzaileena da. Aurten ere, dozenaka eragilek egin dute

bat Korrikarekin, kilometroa erositu, materiala erositu edota diru-ekarpena eginda, eta 11 egunez eta hamar gauzez, eskuz esku

erabiliko dute lekukoa adin eta kolore askotako herritarrek, harik eta martxoaren 24an Baionan amaituko den arte. Jende-oldea aterako du errepidera Korrikak ohi legez, eta parte-hartze masibo horrek gure hizkuntzaz harro gaudela eta guztion artean komunitate sendoa osatzen dugula erakusteko balioko du. Hain justu ere, horri egiten dio erreferentzia AEK-k 23. Korrikarako aukeratu duen leloak: *Harro herri-k*. "Gauden harro garenaz eta egiten dugunaz. Bete ditzagun etxe eta kaleak euskaraz. Harro plazan, online zein kanpoko bizitzan. Harro herri, eta harro Korrikan!", azaldu dute.

Denok batuta, euskararen herria mugitzeko eskatu du AEK-k; eragiteko konpromisoa hartzeko, harrotasunez eta konplexurik gabe. Eta eginahal horretan ari diren guztien artetik, Azterketak Euskaraz kolektibokoak omenduko ditu aurten. Ikasleek osatzen dute kolektibo hori, eta bidelagun dituzte guraso eta irakasleak. Beren ikasketen une erabakigarri batean, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egin dute, Frantziako Gobernuaren aginduen gaitetik. Frantziako estatuan goi-mailako ikasketak egin ahal izateko



ezinbestean lortu behar den ziurtagiria (Baxoa) lortzeko probak, eta Frantziako Gobernuak eskatzen dien agiria (Brebeta) lortzeko 14-15 urteko ikasleei euren kolegioko eskolaratzea gaindutu dutela ziurtatzeko azterketa, euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen dute, harro, Korrikaren leloan jaso bezala. Eta harro eta ozen zabalduko dute euskararen aldeko aldarria Korrikaren furgonetatik ere. Korrikan entzun ohi diren ohiko leloekin batera, Maite Arroitauregi Mursegok musikaturako kantua ere isildu gabe zabalduko dute lau haizetara hamaika egunez. Amaia Astobiza itzultzaile eta ekintzaile feministak idatzi ditu hitzak eta Ibon Rodriguez eta Kau Kori Kura taldeko Mikel Intxausti izan ditu ondoan ekoizpen lanetan Mursegok.

ELGOIBARKO IBILBIDEA ETA LEKUKO ERAMAILEAK

Saturio (12:08an), Sigma, Olasoko biribilgunea, Olasoko hilerritik behera Goiko-errotia zubira, Santa Anako biribilgunea, Antonio Arrillaga, Kalegoen plaza, San Bartolome, Errosario kalea, Kalegoen plaza, San Bartolome, Pedro Migel Urruzuno, Bernardo Ezenarro, Txarridunaneke biribilgunea, Uparitzaga, Toletxe, Karkizao gaina, Arriagako biribilgunea, Alzola, Lanbi (12:55). Hori ibilbidea, eta lekuakoa hartuko duten eragileak 27 dira: Gainduko langileak (Gaindu parean), Haizea emakume taldea (autobus geltokian), Elgoibarko Euskal Eskola Publikoa (gasolindegian), Mauxitza txaranga (Santa kaleko Eroski parean), Sanlo (Correosen), C.D. Elgoibar (Goar aholkularitza parean), Udaleko ordezkariak (Gabi parean), Udal langileak (Astigarraga parean), Jo ta Sua taldea (Jai Alai tabernan), PuntuEUS fundazioa (Eroski bidaiaken), Elgoibarko EAJ (Santander banketxean), Ikastolako gurasoak (P.M. Urruzuniko garbitegi parean), Ikastolako irakasleak (Norfo aholkularitzan), Ikastolako ikasleak (Ongi-n), San Lazaro egoitzakoak (anbulatorio parean), Txankakua merkatarien elkarteak (On informatikan), Elgoibarko EHBildu (Biok margoaken), Elgoibarko Izarra (La Perla tabernan), Haritz dantza taldea (Melitongo zubian), Alcorta Forging Group (Iturri eskuinaldean), Etxepe (San Pedroko trenbideko tunel zaharrean), LAB Rodisa (Karkizano gainean), Ideko S.Coop (Argindar zentrolean),

Danobat Group (Usatorre taberna), Danobat S.Coop (Arriaga industrialdeko sarreran), Morkaiko Mendi Elkarteak (Altzolako autobus geltokian), Elgoibarko AEK Euskaltegia (errepide ondoko araztegi).

MENDAROKO IBILBIDEA ETA LEKUKO ERAMAILEAK

Hemezortzi talde eta elkartek egin dute Mendaron Kilometroa erosteko diru ekarpena, eta honakoa izango da Korrikak Mendaron egingo duen ibilbidea: Biribilgunean herrigunera sartuko da. Estaziotik Garagartza auzoa joango da eta handik anbulatorio ertzeraino etorriko da, Herriko Enparantzara sartzeko. Plaza inguratu eta Mendarozabalerantz joango da. Ikastolan gora hartu eta Kapaindik bueltan Azpilgoetan sartuko da, auzoa alderik alde gurutzatu eta Debarako bidea hartzeko gero. Honakoak dira lekukoak eramango duten eragileak:

Lanbi (Lanbi parean), Mendaroko Ospitala (Aingeru Guardakoan), In Leike kultur elkarteak (Egile parean), Arno guraso elkarteak (Zubi erdian), Ikastola (Olatz ile-apaindegi parean), EAJ (Trinitate kalea, 1), Udala (, Musika Eskola (Uztargi parean), Giza-proba taldea (Ikastola parean), Motxaila Elkarteak (Kapainen), Mendaroko Txirrundulari Elkarteak (Intxarbakuntzako aldapa hasieran), Lizarpe Mendi Kluba (Ormola parean), Aizpe, Bustin alde eta Kilimoi ekarteak (634 errepidean, Mendaroko kartel parean), Gararock (Lizantzu parean), Kolore Biziak (autopistako zubipean), RTS (Geoparkeko kartela aurretik dagoen etxolan), LAB RTS (Txatarrerirako parean) eta Mutualia (Txatarreriko eraikin parean).



KORRIKA TXIKIAK


Elgoibar Ikastolak eta Herri Eskolak elkarlanean antolatu dute Elgoibarren Korrika Txikia, hilaren 20rako. Maalan hasiko dute Korrika Txikia, 15:00etan, eta Kalegoen plazara arteko ibilbidea osatuko dute: Maalan hasi, San Frantzisko kalea, Errosario kaletik Santa Anako Eroski pareraino joan eta Ubitarte kaletik barrena plazara itzuli, San Bartolome kalean behera egin Kultur Etxeraino eta Errosario kaletik barrena plazara itzuli. Bukieran, mezua irakurriko dute udaletxeko balkoitik. Elgoibar BHI Institutuko ikasleak, bestalde, Korrika ofizialera batuko dira aurren, Goiko errota zubi barean. Handik Txarriidunako biribilgunera arteko zatia egingo dute ikasle eta irakasleek. Han agurtuko dute Korrika, eta Maalan elkartu eta eskolarako bidea hartuko dute gero.

Mendaron ere Korrika ofiziala igarotzen den egun berean egingo dute Korrika Txikia, baina



goizez, 10:30ean. Eskolatik irten eta estazioan barrena joango dira eskola-umeak Garagartzara, eta handik, Trinitate kaletik eta autoen norabide berean, San Agustin kulturgune parera iritsitakoan, Landaneko aldapan gora egingo dute Moxuanera, handik plazaruntz joateko. Udaletxe atzetik, botika aurretik pasata, Coviran parera iritsiko dira eta handik aldapa behera eskolaraino. Jolastoki handiko arrantpan gora erretiratuko dira.

AEK Euskaltegiaren izenean Elgoibarren lekukoa hartuko duten ikasleak



Maria Eugenia Gonzalez, euskara ikaslea

"Poza eman dit euskara ikasteak, poz handia, eta askatasuna ere bai"

Zer da zuretzat Korrikan lekukoa hartzea?

Ohore handia. Birritan eramanda daukat, batean Txankakua Merkatarien Elkartearen izenean eta bestean Txixtibildikoen izenean, eta badakit zer den. Hunkigarria izaten da. Korrikaren zain egon naizen tarte hori emozio handiz bizi izan dut beti, eta lekukoa hartzeak beti eragin dit zurrara.

Zer harreman daukazu euskararekin?

Gaztetan Elgoibarko etxe euskaldun batean aritu nintzen lanean eta han piztu zitzaidan interesa. Azpeiti eta Errezil aldekoak ziren eurek eta sekulako euskara polita zuten. Nik ez nien tutik ulertzen, baina izugarri gustatzen zitzaidan haiek entzuten. Gero, laga nuen lana eta

hoztu nintzen, baina umeak ikastolan eskolatu genituenean berriro piztu zitzaidan euskara ikasteke gogo. Eta hasi ere egin nintzen Udal Euskaltegian. Egin nituen urte batzuk ikasten, baina bizitzako gorabeherengatik laga nuen berriro. Garbi neukan lanean erretiroa hartzean helduko niola berriz euskara ikasteari, eta halaxe izan zen. AEKn eman nuen izena, eta oso gustura nabil.

Zerk motibatu zaitu euskara ikastera?

Gustuko izateak. Nik gozatu egiten dut euskaraz. Zaletasuna da nirea.

Zer eman dizu euskara ikasteak?

Lehenengo eta behin, poza, poz handia, eta gero, askatasuna ere bai. Zalantzan dabilenari esango nioke etortzeko euskaltegira, ez delako

sekula damutuko. Barre ugari egiten dugu eta oso giro ona daukagu gure artean. Iruditzen zait, gainera, enpatizatu behar dugula denok ere bizi garen herriarekin eta egin behar dugula ahalegina bertako hizkuntza ikasteko, lagungarri delako bertakotzeko ere. Nire gurasoak kanpotik etorritakoak dira hona, baina gogoan daukat gure aita saiatzen zela euskaraz hitz egiten esne saltzailearekin, jakin ez arren askorik.

Norekin egiten duzu euskaraz?

Ahal dudan guztiakin. Seme-alabak



Luis Azkue Urzelai, euskara ikaslea

"Norbera konturatu behar da hemen euskara lagungarri izango zaiola eta emango dizkiola gauza on asko"

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Gaztetan hasi nintzen, baina ganora

handirik gabe ibili naiz urte askoan, harik eta duela lau bat urte erretiroa hartu eta serio heldu nion arte. Beti izan dut garbi ikasi behar nuela. Erraztasun handiegirik ez dut, eta beti nago hobeto egiten dutenen inbidiatan, baina saiatzen naiz. Satisfazio handia da niretzat.

Euskaltegietara doazen ikaslerik gehienen motibazio nagusia ziurtagiri bat eskuratzean datza, baina zurea gehiago izan da orduan komunitate baten parte izan nahi bat.

Bai. Gure ama euskalduna zen etxetik, baina aitak, jakin arren, oso gaizki egiten zuen eta bien artean erdarara jotzen zuten beti. Etxean erdaraz egiten genuen beti eta eskolan ere bai, jakina. Gaztetako kuadrillan bagenituen euskaldunak eta euskaltzaleak zirenak, baina gure artean erdaraz egiten genuen. 18-20 bat urterekin hasi nintzen ni kontzientzia hartzen eta euskararen premia sentitzen.

Helbururik jarri diozu zeure buruari?

Ondo hitz egitea. Ez dut seguruenak zuek besteko maila izango sekula, baina nahi nuke ondo ulertzea eta elkarriketa bat euskaraz jarraitzeko gai izatea noizbait. Askok kostatzen

euskaldunak dira eta senarra ere euskaltegian dabil, ikasten. Aitortuko dut gizonarekin badudala erdararako joera, baina ahalegintzen naiz hizkuntza-ohitura aldatzen eta horregatik ausartu nintzen Ahobizi izaten ere. Bitxia da, baina aisialdian, mendira goazenean edo pasiaran gabiltzanean, euskaraz egiten dugu beti, baina etxean badugu erdararako joera, bai. Baina biok ari gara ikasten eta seguru nago lortuko dugula euskaraz orain baino gehiago egitea, ez dagoelako nahi izatea baino gauza garrantzitsuagorik eta guk biok nahi dugu.

zait hitz egitea. Konturatzen naiz etorri ahala botatzen ditudala hitz asko, baina ikasteko prozesuaren barruan dago hori ere.

Iñaki Iurrebaso UEMAko teknikariak 'Zergatik eta zertarako euskaldun?' egitasmoaren baitan eman zuten hitzaldian ere ikusi zintugun.

Ahalegintzen naiz halakoetara joaten. Konturatuta nago euskara eskoletara joanda bakarrik jai dagoela. Eskolaz kanpo ere saiatu egin behar da: irratia euskaraz entzun, egunero *Berria* irakurri, euskarazko liburuak irakurri... Egunero egiten dut nik hori eta konturatu naiz asko hobetu dudala denbora gutxian. Nire lagunek ez dakite euskaraz, baina beti saiatzen naiz arnaguneak topatzen euskaraz egiteko. Noan leku guztietan saiatzen naiz euskaraz egiten, nahiz izugarri kostatzen zaidan. Hitz egin beste biderik ez dago ikasteko. Nik denei gomendatuko nieke euskara ikastea, baina kanpoko batek esateak ez dakit zenbateraino balio duen. Norbera konturatu behar da hemen euskara lagungarri izango zaiola Euskal Herrian eta emango dizkiola gauza on asko.

Korrikaren lekukoa hartuko duzu aurten. Zer sentitzen duzu?

Bai. Materiala saltzen ibilita nago aurrez, baina estreinakoz hartuko dut lekukoa eta pozik nago. Harro egingo dut euskararen alde.

ALFONSO EUGI

AEK Euskaltegiko
irakaslea

✍️ Ainara Argoitia

📷 Asier Orbea



AEKko ordezkariak eraman ohi dute lekukoa txandaka Korrikaren azken kilometroan, Nafarroako, Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Ipar Euskal Herriko bina lagunek, eta Alfonso Eugi Elgoibarko euskaltegiko irakaslea izango da aurten Gipuzkoako ordezkaria, Aize Otaño Hernanialdeko euskaltegikoarekin batera.

“Badu festatik eta ospakizunetik, baina Korrika hori baino gehiago da”

Zer da zuretzat euskararen aldeko ekimen handiengan modu honetan parte hartzeko aukera?

Ohore handia. Ez naiz jarri pentsatzen, baina irudikatzen dut jendetza handi bat bueltan, AEK kideak inguruan eta begirada guztiak gugan jarrita. Orain hurrengo Donostian amaitu zenean ikusi genuen hori. Polita izango da

Zenbat urte daramatzazu AEKri lotuta? Nola oroitzen dituzu hasierako urteak?

41 urte. Beste mundu bat zen ordukoa. Garaia bera eta orduko giro soziopolitiko oso ezberdinak ziren eta euskaltegira etortzen zirenen euskara ikasteko motibazioak ere bai. 80ko hamarkada zen, eta 60ko hamarkadako euskaltzaleek sortutako ilusio eta gogo hori sumatzen zen euskaltegira etortzen zirenen artean ere. Orduan harremantzeko eta komunitate bateko kide sentitzeko ikasten zuen bereziki jendeak euskaraz, eta orain, motibazioak askotarikoak diren arren,

titulu bat lortzeko edo lanpostu jakin bat lortzeko behar dutelako etortzen dira gehienak. Eskolak emateko modua ere ezberdina zen. Orduan ilusioa zen motorra, eta orain, dena da teknikoagoa.

80ko hamarkadan hasi zinen AEKn. 1980koa da lehenengo Korrika ere. Zer oroitzen daukazu?

Oñatin hasi eta Bilbon bukatu zen estreinako hura. Oso eguraldi makurra egin zuen eta esango nuke Elizako kanpaiak jo zituztela Elgoibartik pasatu zenean, baina ni etxean nengoen. Bigarren edizioan plazara joan nintzen lagunekin Korrikara batzeko. Nire akorduan, asteburuan pasatu zen hemen, goizaldeko ordubiak aldera. Gaur egun dena dago oso lotuta eta zehaztuta, baina orduan ez zen garbi jakitzen zer ordutan pasatuko zen Korrika. Gertatu izan zitzaigun Korrika behar baino aurretik iritsi eta San Frantzisko kalean gora korrika egiteko asmoz zetorren jendeari notizia hori eman beharra ere. Orain zuzenean ere jarrai

dezakegu 24 orduz. Oraindik akorduan dauzkat 22. Korrikak laga zizkigun irudiak, jendea Etxarri aldean furgonetari bultzaka elurretan aurrera egin zezan. Beste dimentsio bat du orain. Lehen ez zen izaten gaur besteko jendetzarik ere.

Parte-hartzea masiboa izate horrek badakar arrisku bat: Korrika jai hutsean gelditzea.

Bai, hori da, eta 23. Korrikaren aurkezpenean ere ohararazi zuen Ane Elordi Korrikaren arduradunak. Korrikak badu bere alde ludikoa, badu festatik eta ospakizunetik, baina Korrika hori baino gehiago da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzeko eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzeko sortu zuen AEK-k Korrika, eta 43 urte geroago, helburu bera du, diru hori gabe ezin delako Euskal Herri osoan ehun euskaltegi zabalik mantendu. Korrika ez da festa hutsa; Korrikak euskararen aldarria dakar. Euskaraz bizi nahi dugula esatera gatoz; euskarari eutsi egin behar diogula esatera, bizi duen egoera ez delako batere ona. Jende guztiak nahi izaten du herri barruan egitea Korrika, herri barruan eramatea lekukoa, argazki politena berea izatea, baina hemen esaten ari garena da hau jai huts bat baino gehiago dela. Esaten ari garena da euskarak behar gaituela eta busti egin behar garela; euskara ikasi eta erabili egin behar dugula Euskal Herrian, nonnahi eta noiznahi. Eta ez dut etsipen mezua zabaldu nahi, euskaldun kontzientziadun jende asko daukagulako. Ikusi besterik ez dago bertso saioetan zer nolako jendetzak batzen diren, baina hain dira indartsuak herri hau erdalduntzen ari diren indarrak, derrigortuta gaudela geu ere konplexurik gabe eta indar handiagok ekitera.

Euskaldun kontzientzia hartu behar dugula alegia.

Hori da. Gauzak ez dira sekula bakarrik etortzen eta guk ahalegina eginda ere, ez daukagu erraza, korrontea oso erdalduna delako eta euskararen kontrako oldarraldia bizi dugulako. Ni seko harrituta nago ikusita zer nolako atxikimen txikia dion gazte jendeak euskarari Elgoibarren.

Euskaldun gisa dagozkigun hizkuntza-eskubideak exijitzea ere bada euskaldunon eginbeharra. Eta hain justu ere, horretan ari den kolektiboa omenduko du aurten Korrikak: Azterketak Euskaraz. Zer duzu esateko?

Izugarria dela kolektibo hori egiten ari den lana. Gogor ari dira azterketak egiteko

"Euskararen aldeko kontzientzia suspertzeko eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzeko sortu zuen AEK-k Korrika, eta 43 urte geroago, helburua berbera da"

sasioan dauden gazteak Brebetako eta Baxoako azterketak euskaraz egin ahal izatea exijitzen. Eredu dira euskaldunontzat.

Elgoibarko AEK-rentzat zer da Korrikaren antolakuntzan jardutea? Noiz hasten da hemen lana?

Urtebete lehenago hasten gara, ibilbidea lotzen eta neurketak egiten, eta irailean hasten gara bestelako kontu batzuk lotzen. Gabon aurretik materiala saltzen hasten gara eta Korrika Kulturaleko ekintzak lotzen, eta urtarrilean atzera kontaketa hasten dugu. Egia esan gauza asko dira, eta lana da, ez dugulako ahaztu behar gure eguneroko jarduna ez dela eteten denbora guzti horretan. Batzuetan harritu egiten naiz ikustean nola ez diguten gauza gehiagok ihes egiten. Aldi berean, 23. Korrika da aurtengoa, eta horrek berak erraztu ditu gauza batzuk, Korrikak orain baduelako lehen ez zuen izen eta izan bat eta herriko elkarte eta eragile askok ez dutelako asko pentsatu beharra izaten kilometroa erosteko. Errepikatu egiten dute askok. Hala ere, beti izaten da azken orduan kilometroa erosi nahi duela esanez datorrenen bat. Orain hurrengo ere, bi egun aurretik etorri zitzaizkigun bi elkarte eta han ibili ginen non sartu asmatu ezinda, zaila baita ibilbidea lotuta eta petoak-eta banatuta dituzunean azken orduan zerbait aldatzen hastea. Ahal duguna egiten dugu.

Nola bizi dituzue Korrika etorri aurreko egun hauek Elgoibarko bulego honetan?

Nahiko genuke ostiralerako [gaur] lanak amaituta laga, datorren astean sortu daitezkeen azken ordukoei lasai erantzuteko moduan izateko. Nolabait esateko ikuskizuna prestatuta eta sarrera guztiak salduta izan nahiko genituzke datorren asterako, funtzioaz lasaiago gozatzeko, eta inprobisatu beharra balego, burua horretara izateko, beti izaten baitira sorpresak.

Gazteen euskalduntasuna sustatzeko, hizketaldi bat eta bakarriketa bat lotu dituzte Elgoibarren

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak sortutako *Zergatik eta zertarako euskaldun?* programaren barruan, ZZ Gazteak izeneko Elgoibarko gazte talde batek bi hankako ekimena antolatu du martxoaren 22rako, Udalarekin lankidetzan. Batetik, Geruzak taldeko bi gaztek dinamizatuta, eta, taldetasuna gaia oinarri hartuta, pentsamendu kritiko eta autonomorako espazio bat sortuko dute gazteentzat. Ikus-entzunezkoen bitartez eta material osagarrien laguntzaz, eztabaida eta kultur transmisioa sustatuko dute. Kultur Etxeko hitzaldi-gelan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Bestetik, Maria Blanco umoregile, aktore eta dantzariaren bakarriketa ere lotu dute egun horretarako. Aita Agirre kulturgunean emango du bakarriketa



Blancok, 20:30ean hasita, eta bukaeran, afari-merienda egingo dute elkarrekin.

Iaz abiatu zuten *Zergatik eta zertarako euskaldun?* programa pilotua Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak, eta bi hitzaldi antolatu zituzten haren baitan: Ibai Iztueta irakaslearena eta Jon Sarasua kulturgile eta irakaslearena. Aurten, jarraipena eman diote, eta aurreratu dute bost ekimen antolatuko dituztela. Iñaki Iurrebaso UEMako teknikariak joan zen otsailaren 28an eman zuen hitzaldia izan zen estreinakoa, eta ZZ Gazteak taldeak lotu duen hau bigarrena.

'Ipurbeltz' familia antzerkia emango dute hilaren 17an Elgoibarren



Mundua ikusteko modu desberdinak onartzearen garrantziaz hitz egiten du Ameztu produkzioak & Imaginaciones Nairen Ipurbeltz antzerkiak. Unai Saenz eta David Gutierrez dira aktoreak eta gidoia bera ere Saenzena da. Honela dio sinopsiak: zuhaitzentzat bitzta berdea da, Arbirentzat ordea morea; bakoitzak era ezberdin batean ikusten ditu gauzak eta ez dute elkar ulertzen, baina hasieran arazo bat dirudiena altxor bihurtzen da.

'Passport' antzezlanarekin dator gaur, barikua, Yllana konpainia Elgoibarrera



Lau komikok Komedistan izeneko herrialde batean zehar egindako bidaiari buruzkoa da *Passport* antzezlangia, munduan hara-hona barrea zabaltzen aritzen diren artistei egindako aitortza halako bat. Yllana konpainia entzutesuaren lana da, Fidel Fernandezek zuzendutakoa, eta bost aktore arituko dira oholtzan: Cesar Maroto, Ruben Hernandez, Susana Cortes, Edu Ferres eta Estefania Rocamora. Herriko Antzokian izango da emanaldia, 19:00etan hasita.

Unax Ansolak irabazi du Elgoibarko Auresku Txapelketa



Gazteen mailako gipuzkoar erako auresku txapelketa jokatu zuten domekan Elgoibarren, eta Unax Ansolak elgoibartarra nagusitu zen 11 eta 14 urte artekoen sailean. Antolatzaileak, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolakoak, ez dira sailkapenari gehiegi erreparatu zaleak, baina kasu honetan aipatzekoa da Ansolak egindako lana, berak lortu zuelako garaipena, iaz eskuratu zuen hirugarren postua onduta.

Legazpi, Zizurkil, Andoain, Amasa-Villabona, Tolosa, Erreterria, Asteasu, Astigarraga, Lizartza, Lezo, Leitza, Lasarte-Oria, Areso eta Elgoibarko dantzariak hartu zuten parte Elgoibarko XXIII. Auresku Txapelketan, bi kategoriatan banatuta: B saila (11-14 urte) eta D saila (14-15 urte). Unax Ansolaz gain, Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako beste hiru dantzari ere lehiatu ziren: Uxue Cabrera eta Duna Santos D sailean, eta Haizea Luluaga gazteagoen sailean. Haien guztiak egindako lana txalotu dute antolatzaileek: "Parte hartu zuten dantzari guztiak zoriondu nahi ditugu, herrikoak eta beste herrietatik etorritakoak, guzti-guztiak lan ikaragarria egiten dutelako gure herriaren nortasuna diren euskal dantzak mantentzeko eta zabaltzeko; eta, ez ditugu merezi duten adina baloratzen".

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren 'Ztandap' ikuskizun berria ikusteko aukera izango da Elgoibarren, domekan



Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren ikuskizun berria da *Ztandap*, binakako bakarrizketa. Generoa umoregai hartuta, orgasmo arrakalaz, elkarbizitzaren ajeez eta señora izateaz hitz egingo dute ordu beteko saioan, eta domekan, martxoaren 17an, Elgoibarren izango dira, Aita Agirre kulturagunean, 12:30ean.

'Bizkarsoro' filma emango dute martitzenean, Elgoibarren, eta barikuan, Mendaron



Korrika Kulturalaren barruan antolatu dute bi herrietan *Bizkarsoro* filmaren emanaldia. Elgoibarren Herriko Antzokian emango dute hilaren 19an (martitzena), 19:00etan, eta Mendaron San Agustin Kulturagunean emango dute, 18:30ean.

Josu Martinezek zuzendutako fikziozko luzemetraia da *Bizkarsoro*, eta 1914tik 1982ra bitartean gertatzen diren bost istorio osatzen dute filma. Ahozko lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarritutako fikziozko bost istorio dira, bost hamarkadataro kontakizuna. Euskaraz bizitzaegatik jazarriak izan diren euskaldun guztien istorioa.

Zerua motxailen aterpe bertso-saioarekin hasiko dituzte gaur bi eguneko ospakizunak Mendaron

Asteburu betea dute Mendaron hau, motxailen asteburua. Garai bateko Sasikopotzu ohiturari lotutako ospakizuna da, udaberriaren etorrera ospatzeko bi eguneko jaia. Gaur gauean hasiko dituzte ospakizunak, San Agustin kulturgunean, Motxaila Elkarteak Udalaren babesarekin antolatu duen Zerua motxailen aterpe bertso-saioarekin. Alaiia Martin, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Julio Soto arituko dira bertsoetan, Ainhoa Urbietaren esanetara, eta Mendaroko bertso eskolako gaztetxoek ere parte hartuko dute jaialdian.

Bihar, berriz, eta usadio bihurtu den eran, Aitzbeltz kobazulora igoko dira, 09:00etan Gaztetxean batuta. Han, Inma Mugertza hidrogeologo elgoibartarrak paisaia karstikoaren inguruko eta lurrazpiko uren inguruko azalpenak emango ditu eta mokadua ere egingo dute. Hangoak



bukatutakoan Gaztetxean elkartuko dira berriro, bazkaritan, eta bazkalostean Manex Astigarraga eta Asier Galarza bertsolariek bakarrikzeta bana egingo dute. Ondoren, Patxangoi txarangarekin tabernaz tabernako jira hasiko dute, eta gauerako, bi kontzertu antolatu dituzte: Ortzi eta Kaparrak taldeenak.

'Bote prontoan' izeneko antzezlanaren emango dute Mendaron etzi, hilak 17, Korrika Kulturalaren barruan



Korrika Kulturalaren barruan, *Bote prontoan* izeneko antzezlanaren antzeztuko dute Esti Curiel aktoreak eta Maria Zubimendi musikariak Mendaron, martxoaren 17an (domeka), Goñati frontoian, 17:00etan. Itsasoan inspiratutako testu eta musika sortu dute bi artista zumaiarrek. Malena izango da istorioaren protagonista, kostaldera iritsi berri den emakumea eta bertako ohitura eta kondairak entzunaz herria eta herriko jendea ezagutuko ditu.

Gabriel Arestiren poesia eta kantak ekarri zituzten gogora Eñaut Elorrieta eta Iñigo Astizek



Gabriel Aresti (1933-1975) izen handia da euskal literaturan, eta neurrigabea da euskal literaturari egin dion ekarpena. Haren obra ekarri zuten gogora Eñaut Elorrietak eta Iñigo Astizek martitzenean. Musika Eskolako auditoriumean batu ziren ikusleek une hunkigarri eta gozoak bizitzeko aukera izan zuten, eta denek batera Egun da Santimamiña abestia kantatuz bukatu zen ekitaldia. Korrika Kulturalaren barruan antolatu zuten ekimena Elgoibarko Izarrak, Udalak eta AEK euskaltegiak.

Euskal Ligarako igoera fasea jokatzeko sailkatu da estreinakoz Danobat Elgoibar Xake Taldea



Gipuzkoako mailarik gorenean, Preferente Mailan, lehiatzen ari den Danobat Elgoibar xake taldeak estreinakoz lortu du Euskal Ligarako igoera fasea jokatzeko sailkatzea. Preferente Mailako taldekako fasean hamasei talde lehiatu ziren, bi multzotan banatuta. Zortzi onenek lortu zuten Euskal Ligara igotzeko playoffetarako sailkatzea, eta horietako bat izan zen Danobat Elgoibar taldea, bere multzoko hirugarren sailkatuta. Gainerako zortzi taldeek Lehen Mailara jaisteko kanporaketak jokatu zituzte. Zubi Ondo xake taldetik azaldu dutenez, estreinakoz lortu dute igoera kanporaketak jokatzeko sailkatzea, ezustean lortu ere, jaitsiera kanporaketak jokatu beharko zituztela sinistuta baitzeuden. "Xakeko Girona izan garena esan digute gainerako taldeetakoek ere,

Gironak Lehen Mailan eduki zuen hasiera apartarekin konparazioa eginez. Poz handia hartu genuen playoffetarako sailkatuta, ustekabe handia izan baita. Playoffak jokatzeko aukera izateaz gainera, beste urte batez Preferente Mailan egotea ziurtatu dugu, eta horrek dauka balorea guretzat". Danobat Elgoibar taldekoek zapatuan hasi zuten Euskal Ligarako igoera fasea, eta hasi eta bat galdu dituzte igoera lortzeko aukerak. Taldekako faseko emaitzak kontuan hartzen dituztenez, igoera kanporaketetako lau jardunaldietan irabazi beharra zeukatzen, bai ala bai, baina gogorregia izan zen bidean topatu zuten lehen harria. Preferente Mailako egungo txapelduna den Fomento Cultural taldea izan zuten aurkari zapatuan, eta errenteriarrok gailendu ziren 3.5-05 emaitzarekin.

Saturio erreka hazita zetorrela eta Morura egin zuten mendi irteera domekan



Eibarko Azitain auzoraino mendiz mendi joateko irteera antolatu zuten Morkaiko eta Herri Eskolako zein Elgoibar Ikastolako gurasoek domekarako. Elgoibar eta Eibar lotzen dituen bide zahar batetik joatea zen asmoa, eta hala abiatu ziren, baina Saturio erreka ailegatu zirenean ezin izan zuten igaro, urez gainezka zetorrelako. Hortaz, plana aldatu eta Morura igotzea erabaki zuten. Idortorbetik

errepidez jaitsi beharrean, Errotaxoraino jaitsi ziren mendi bideetatik. Hurrengo mendi irteera apirilaren 14rako iragarrita zuten, baina egun horretan Jose Gurrutxaga krosa egingo dutenez, apirilaren 28an egingo dute irteera, Erlora. "Euskal Mendi Federazioak 100 urte bete ditu aurten, eta 100 tontorretara igotzeko proposamena aurkeztu du. Elgoibartarrok Erlora joango gara", azaldu dute.

Bastian Laffitte VC Nayais taldeko txirrindulariak irabazi du Mendaro Herria lasterketa

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatutako kadeteen mailako lasterketa jokatu zuten zapatuan Mendaron. Zubiko obrak direla-eta Kurutz gain industrialdean hasi eta amaitu zuten lasterketa. 120 laguneko tropela abiatu zen eta horietatik ehunek lortu zuten lasterketa amaitzea. Denetan azkarrena Bastian Laffitte VC Nayais taldeko txirrindularia izan zen, 55 minutu eta 34 segunduko denbora eginda. Beste sei lagunekin batera sartu zen azkeneko metroetan eta esprinean gailendu zen. Bigarren Urko Nazabalek egin zuen, Oriako Limousin Kartoiak taldekoak, eta hirugarren Oxel Azkarate



Peguero (Inoxcra Beasain) helmugaratu zen. Elgoibar Lagun Taldeako bost txirrindularik ere parte hartu zuten lasterketan: Iñaki Astigarraga (51.), Aimar Gonzalez (54.), Unai Cornejo (78.), Oscar Moreno (93.), Aratz Goikoetxea (97.). Lasterketako laburpen bideoa barren.eus webgunean.

Ekain Soto igerilariak hirugarren postua lortu du Gipuzkoako Neguko Sarian



Absolutu eta infantil kategorietako igerilarienzako Gipuzkoako Neguko Saria jokatu zuten zapatuan, Andoaingo Allurralde kiroldgian. Elgoibar Igeriketa Taldeko zenbait kide ere lehiatu ziren Andoainen, eta pozik itzuli ziren lortutako emaitzekin. Ekain Soto gazteak krol estiloko 200 metroko proban lortutako hirugarren postua nabarmendu behar da. 4 x 50 estilo libreko erreleboetako proban lehiatu zen Elgoibarko laukotea ere gustura gelditu zen egindako lanarekin.

Bera Berako jokalariekin entrenatu dira Sanloko jubenilak

Aurten Illunben jokatuko dute Espainiako Erreginaren Kopako azken fasea, maiatzaren 10etik 12ra. Txapelketa hori prestatzeko entrenamendu saioak egiten ari da Bera Bera taldea, herriz herri, goi mailako eskubaloia herrietara zabaltzeko, eta Koparako girotzeko. Joan den egunean IMH kiroldgian egin zuten entrenamendu saio irekia. Bera Berako jokalariek Sanloko jubenil mailako emakumeekin batera aritu ziren entrenamenduaren hasieran, eta arratsalde ederra pasatu zutela esan dute Sanlokoek.



Pilota plazara



Kalegoen plazako frontoi zaharrak hartu zituen berriro ere Pilota Eguneko finalak Elgoibar Ikastolak antolatuta, 2019tik lehen aldiz. Pandemiaren etenaren ostean iaz berreskuratu zuen Ikastolak Pilota Eguna, baina eguraldiagatik Ikastolako frontoian egin zuten. Eguraldi eguzkitsua, baina haizetsua egokitu zaie pilotariei aurtengoan, baina ikuskizun polita eman zuten Kalegoen plazan. Ikuslez gainezka, euskal pilotaren festa izan zen. Finalerako sailkatu ziren 28 bikoteek hamalau partida jokatu zituzten, 12 tantora. Sari banaketa ekitaldian Maialen Gurrutxaga alkateak, Rikardo Astigarraga kirol zinegotziak eta bi pilotari profesionalak parte hartu zuten: Aitor Elordi mallabiarrek eta Ainhoa Ruiz de Infante otxandiaak. (🚗 Ainhoa Andonegi)



LANA

Eskaerak

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak. **604 392 529**

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanetarako ere. Esperientzi handia. **637 222 318**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketan aritzeko prest nago. Baserrietara joateko autoa dut, titulu soziosanitarioa eta esperientzi handia. Berehala hasteko prest. **602 834 107**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, baita etxeko langile moduan aritzeko ere. Arratsaldez edo gauetz. Esperientzia daukat. **661 181 824**

Adinekoak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia eta titulu soziosanitarioak ditut. Etxe edo bulegoetan garbiketa lanak egiteko prest. **631 887 341**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. **647 554 386**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **666 012 086**

Lan bila nabil. Umeak edo adinekoak zaintzen esperientzi handia daukat, baita bulego edo etxeko garbiketetan ere. **673 764 776**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, baita etxe edo bulegoetan garbiketa lanak egiteko ere. Esperientzia daukat. **632 420 940**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, baita etxe edo bulegoetan garbiketa lanak egiteko ere. Esperientzia daukat. **642 577 823**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, orduka. Esperientzia daukat. **647 554 386**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, orduka. Esperientzia daukat. **643 505 827**

Astean zehar, goizez, adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta zaintza titulua. **685 729 790**

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zainduko nituzke. **613 255 520**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketan aritzeko prest. Esperientziaduna. Titulu soziosanitarioa ateratzen dihardut. **642 578 943**

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Titulu soziosanitarioa daukat eta lanerako baimena. Esperientzia. Berehala lanean hasteko prest. **642 577 823**


Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Titulu soziosanitarioa daukat. **614 114 360**


Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan. Erizain titulua eta soziosanitarioa ditut. Esperientzia. **643 505 662**

Erizain titulua daukat. Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. **647 554 386**

| | |
|--|---|
|  <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatzaileak Lanari Komunitate</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p> | <p>Komunitateko lehendakaria zenak etxebizitza saldu berri du, eta jakin nahi nuke, lehendakari kargua nori egokituko zaion orain.</p> <p>Lehendakariorde kargua ere izendatu den komunitatean, berari dagokio lehendakaria ordezkatzea. Interpretazio zorrotz baten arabera, lehendakariordeak bere gain hartzen ditu presidentearen eginkizunak barne-ondorioetarako bakarrik. Beraz, hirugarrenetik harreman juridikoetan esku hartzeko edo epaitegi edo erakunde ofizialen aurrean agertzeko, beharrezkoa da Jabeen Batzordeak lehendakari berri bat izendatzea. Interpretazio zabal batek, ordezkapenez hitz egiten denean, ondorio guztietarako egiten duela esan dezake, lehendakariari dagozkion eskumen edo ahalmenetan inolako mugarik jarri gabe. Beraz, benetako lehendakari gisa jardungo luke. Egintzak baliozkoak izango dira, bai barruan, bai hirugarrenen aurrean. Nire ustez, ez da beharrezkoa Jabeen Batzarra egitea lehendakari berria izendatzeko, eta lehendakariordeak lehendakaria ordezkatzeko du eginkizun guztietan, lehendakari berria izendatu bitartean.</p> <p>Ondorioa: jabe berriak ezin du lehendakaritza hartu, ezta funtzioetan ere. Lehendakariaren kargua pertsonala eta besterenezina delako. Beraz, ez zaio eskualdatzen jabe berriari, eta ezin da eskuordetu.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p> |
|--|---|



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **June**, gaur 9 urte egin dituzulako. Maitasunez, familiakoen partez, mila muxu.



Zorionak, **Paul**, larunbatean 6 urte handi bete zenituelako. Primeran pasatu genuen. Muxu handi bat lagunen, familiakoen eta, bereziki, Luciaren partez.



Zorionak, **Anike!** 9 urte! Etxeko denok asko maite zaitugu, maitea.



Zorionak, **Ibai!** Gaur 3 urte handi! Primeran ospatuko dugu! Patxo potolo bat, etxekoen partez.



Zorionak, **June** eta **Maddi**, asteartean 10 urte egin zenituztelako. Asko maite zaituztegu.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarrian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



15 BARIKUA

15:30 Odol ateratzeak, Mendaron.

18:00 Hitzaldia: 'Mugikorren auzia'. Gurasoentzako saioa izango da. Telmo Lazkanok emango du, Aita Agirreko areto nagusian. Gaztelaniaz.

19:00 Antzerkia: 'Passport'. Yllana taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

22:00 Motxaila Eguneko bertso saioa, Mendaron. San Agustin kulturgunean.

16 ZAPATUA

13:00 Pedro Mugurutza eskola zaharra eraistearen kontrako elkarretaratzea. Kalebarren plazan.

17 DOMEKA

12:30 Bakarriketa: 'Ztandap'. Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena. Aita Agirre kulturgunean.

16:30 Familia antzerkia: 'Ipurbeltz'. Herriko Antzokian.

17:00 Antzerkia: 'Bote prontoan'. Korrika Kulturalaren barruan, Mendaroko frontoian.

18 ASTELEHENA

17:00 Hitzaldia: 'Bakardadea'. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

18:00 Hausnarketa saioa: 'Maitasunaren bost hizkuntzak, maitatzeko modu desberdinak'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

19:15 Talde instrumentalen kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

19 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: Theodor Kallifatidesen 'Madres e hijos' liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

19:00 'Bizkarsoro' filma. Korrika Kulturalaren barruan, Udalak, AEK-k eta Zineklubak antolatuta. Herriko Antzokian.

20 EGUAZTENA

12:00 Korrikari ongi-etorria, Santa Ana kaleko errotondan, Mauxitxa txarangarekin.

15:00 Korrika Txikia, Maalako parkean hasita. Bukaera, Kalegoen plazan. Herri Eskolak, Ikastolak eta AEK-k antolatuta.

19:00 Epeletan literatura tailerra: Paul Austerren 'Bidaia scriptoriumean zehar' liburua landuko dute. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

19:00 Gobernu Planaren aurkezpena. Mendaroko udaletxean

21 EGUENA

18:30 Mahai-ingurua: Osasungintza publikoa. 24/7 Plataformak antolatuta, SATSE, ELA, LAB, ESK eta SME sindikatuekin. Herriko Antzokian.

22 BARIKUA

18:00 'Zergatik eta zertarako euskaldun?' egitasmoa: gazteentzako hizketaldia. Kultur Etxean.

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia. Lilan.

18:30 'Bizkarsoro' filma. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

20:00 'Zergatik eta zertarako euskaldun?' egitasmoa: Maria Blancoren bakarriketa. Aita Agirre kulturgunean.

KARAKATE EGUNA

Martxoak 16, zapatua

10:00 Rokodromoa, jolasak eta eskulanak. Kalegoen plazan.

12:30 Trikitilari eta dantzariak.

13:30 Erraldoiak eta dultzaineroak. Kalegoen plazatik, Maalara.

14:30 Performancea, Taupadaren eskutik. Maalan.

Segidan, bazkaria.

19:00 Kontzertua: Gabi eta Alfonso. Maalan.

Segidan, Kitziki musika taldearekin dantzaldia. Maalan.

22:30 Kontzertua: Los del garaje, The pladures, Los jacintones taldeekin. Maalan.

MOTXAILA EGUNA

Martxoak 16, zapatua

9:00 Aitzbeltz kobazulora ibilaldia, Gaztetxetik.

11:00 Mokadua, kobazuloan bertan, zuzeneko musikarekin.

15:00 Bazkaria, gaztetxean.

Bazkalostean, Manex Astigarraga eta Asier Galartza bertsolariak.

Ondoren, triki-poteoa Patxangoi elektrotxarangarekin.

Gaeon, kontzertua: Ortzi eta Kaparrak musika taldeak, Gaztetxean.

Zinea
Herriko Antzokian



'Pobres criaturas'

16, zapatua: 19:00 / 22:15
17, domeka: 19:00
18, astelehena: 21:00



'Femme'

(Ongarri zinekluba)
20, eguaztena: 21:00

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MARTXOA

| | |
|---------------|---------------------|
| 15 BARIKUA | Barrenetxea |
| 16 ZAPATUA | ■ Ibañez / ■ Yudego |
| 17 DOMEKA | ■ Ibañez |
| 18 ASTELEHENA | Garitaonandia |
| 19 MARTITZENA | Arriola |
| 20 EGUAZTENA | ■ Fernandez |
| 21 EGUENA | Yudego |
| 22 BARIKUA | ■ Oruesagasti |

2024 urte guztian, gaeuz:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

| | | |
|--|--|--|
| ■ Fernandez: Herriko Eparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142 | ■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638 | ■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384 |
|--|--|--|



**Ekarri etxean duzun aulki edo
sofa zahar hori eta
berri-berri utziko dugu!**
Milaka oihal ditugu aukeran!



Mamuak sorgin

Anjel Ugarteburu



L oaldi laburrak, gauak gero eta luzeago, gorputza zuzentzeko arazoak ohetik jaikitzean, gerriak krak-krak, zapatilen lokarriak gero eta urrunago, aurpegi eta lepoko azala gero eta tximurrago, bista eta pausoa gero eta laburrago, eskaileretako mailak gero eta altuago, arnasa estuago. Ajeak dira. Motor zaharraren piezak higatzen diren modu berean gure gorputzekoak ere. Eztul eta marranta motor zaharkituak. Aldatzea tokatzen da.

Seme-alaben eta biloben arazoek, haien heziketak, haien etorkizunak ere kezka sortzen digute. Gu txikitzen eta arazoak (edo mamuak) handitzen. Gazteago ginenean gure gorputzak beste indar bat zuen eta etorkizuna planifikatzeko gai ginen. Arazoak arazo, **sorginen** antzera, **sortzeko** indarrez "hodei guztien gainetik eta sasi guztien azpitik" haiei aurre egiteko gai ikusten genuen gure burua. Zer den gazte izatea!

Gorputzaren indarrak ematen du adorea eta kemena. Zahartzaroan, aldiz, arnasa, bista eta memoria laburtzen diren modu berean beheraka etorri ohi dira kemena eta itxaropena ere. Ezkorrago gara. Etorkizunaren beldurra ezezik, iraganean txarto edo nahi bezain ondo egin ez dugunaren damua ere azaltzen da tarteka: "Hau beste era batera egin izan banu...", beste hura esan edo egin baino lehen dutxa lasai bat hartu izan banu...".

Gero pentsatzen dut beste era batera jokatu izan banu ere arazoa ez zela konponduko; akats hura saihestu izan banu, beste hiru egingo nituela... Geure mugak onartzea da, azken batean, bidea; eta gure buruaz bezain errukior izatea besteen akatsez ere.

Gauza bera gertatzen zaigu munduko gatazkek sortzen diguten ezinegonarekin ere: Palestina, Sahara, Katalunia, Guatemala eta Guatepeor; gure Euskal Herria, noski. Handiegi dira nire indarren neurrirako. Baina horrek ez dit galaraziko munduko edozein tokitan, boterearen eta aberastasunaren izenean, egiten diren astakeriak eta injustiziak salatzea, egunen batean, gazteen gorputz eta kemenaren indarrez, gizarte hobea lortuko dugun itxaropenez. Inork ez du eskarmenturik hartzen besteen gorputzean eta badirudi, belaunaldiz belaunaldi, betiko zulo eta harrietan egiten dugula estropezu eta ez dugula aurrera pausorik ematen,

betiko akatsetan kateatzen den zirkulu biziotsu batean bizi garela, baina ekidin ezin dugun zirkulu hori "espiral" bihur genezake, agian, eta duintasunez bizitzeko aurrerapenak bideratu gizarte eta nazioarte osoarentzat.

Izango da gure lekukoa nork hartu, guk ere, aurrekoek erakutsitako bideari segika, nola edo hala ekarri dugun bezala edo hobeto suzia eutsi eta eramango dutenak. Gazteagoen txanda da. Guri, belaunaldi berriari geure eskarmentuaren berri

eta aholkuak ematea dagokigu eta haien indar eta kemenean konfiantza jartzea. Itxaropen horrek bizi gaitu, belaunaldiz belaunaldi burutu beharreko lan luze eta amaiezina baita gizarte aske eta justuagoa lortzeko ahalegina.

Gure **mamuak sorgin** bihurtzeko gai den belaunaldi berrien esku uztea da zentzuzkoena, zuzentasunaren aldeko ekimena eta lana eta, aspaldiko adiskide batek esaten duen bezala, eman ahal ditugun aholkuei kasu egingo dieten itxaropena galdu gabe, mundura iritsi berri den baten antzera bizitzea, ez damu, ez arrenkura, betiko orainaldian.





Zabaldu atea BARREN astekariari, eta egin zaitez harpidedun!

Aspaldi bazabiltza BARREN etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.

943 744 112

barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



EXPRESS ESKAINTZAK!

SAUBER ONTZI-GARBIGAILUA 1-DW6103XV

A
T
G

349 €



- 12 zerbitzu
- 9 ordura arteko hasiera geroratua
- Karga-erdia
- Goiko saskia doigarria da
- LED adierazleak
- EXO programa
- Aztarnen aurkako altzairu herdoilgaitza

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Osasun gida.....

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

Jeku
eder

hortz klinika

RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com

RPS 117/19

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Elbar
677 551 850

federópticos

ikus

RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Elgoibar BHI

<http://www.elgoibarbhi.eus>

2024-2025 Batxilergoko aurrematrikulazio epea: Apirilaren 8tik 19ra arte (on-line zein ikastetxean)

Ate irekien eguna Batxilergoan: Martxoak 18, Ezenarro eraikuntzan (MEKAN)

18:00etan gazteleraz, eta 19:00etan euskaraz



943 899 316
013431aa@hezkuntza.net

